

artelka

**MEME
KULTURA**



— **M**enderakuntza-saiakera
politiko irrazional eta
bortxazkoaren prozesua
agerian geratzen da: lehen urratsa auzi politiko
bati mespretxuz erantzutea da, solaskidea
gutxietsiz, bera irrigarri uzten saiatuz edota
zentzu komuna bere egiten duen mezua zabalduz.
Ondoren dator txistea, jatorrizko mezu horrek
erantzuna jaso eta zer erantzun ez dakitenean.

Edulkia Contenido

6

10

26

38

EDITORIALA

Arteka

Ondoren dator txistea

KOLABORAZIOA

Garikoitz Ortiz de
Villalba Redondo

**Meme kulturaren
logika politikoa**

REPORTAJEA

Arteka

**La industria del
entretenimiento: el
fantasma que recorre las
generaciones de hoy**

ERREPORTAJEA

Arteka

Haustura 280 karakteretan

Ondoren dator txistea

Editoriala

Ez dezagun sekula ahaztu: etsaia mende hartzean datza politika, eta politikoak dira azken helburu horretan laguntzen duten bitarteko guztiak. Horien artean, jakina, argudio onenak izatea edota teoria jakintza gorena izatea garrantzitsua da, horiek ere indar material erraldoi bilakatu daitezkeelako indar antolatu batez jabetzen badira edo, zuzenago, indar modura antolatzen badira. Ez ditzagun, ordea, neurri gabe goraipatu, bere horretan, gaitasun errealekin duten erlazioa kontuan izan gabe. Argudio batek gal dezakeelako etsaiaren ukabilkada baten aurrean, noiz eta nola erabili behar den ulertu ezean.

Ezin uka, ordea, argudiaketa gaitasunak eta maila teoriko altuak garrantzia handia izan dutela gaitasun politikoen antolakuntzan. Baina hori guztia bezain benetakoa, halako latza izan da ere hainbat belaunaldi komunista faxisten fusilaren aurrean erortzen ikustea eta egiaztatzea belaunaldi horien faltan argudiaketak eta jakintzak heldulekurik izan ez dutela, eta atzera egin dutela. Ez zaigu aski arrazoia, bera errealitate bihurtzeko indarra antolatu behar dugu.

Halakoetan, sarri aipatu izan dugun teoria eta politikaren arteko lotura –edo berdina izatea–

Askok dio bromak direla edota sare sozialetan gertatzen direnak ez direla errealitatea; zaplazteko batek sortzen duen mina, ordea, guztiz erreala da, eta erreal egiten du gure kide bakoitzari jaurti dioten irain bakoitza ere, gure kideak irrigarri utzi asmoz egin duten txiste bakoitza

errealitatearen aurpegi krudelenarekin inposatzen da: gaitasun politikorik ezean, mugimendu errealararen faltan, teoriak ez du izaterik. Argudioak ere antzu dira gorputz sozialik ez badute. Zorionez, etsaiari ez diogu soilik hitzez aurre egin, eta egun, komunismoa, ideia bat baino gehiago, bada egitasmo antolatu bat bereziki, potentzia erreal bat. Esan dezakegu argudioa memeari gailendu zaiola, errealitate krudela fikzio erreala baino argudio hobea baita. Eta eskerrak serio hartu dugun, ona den umorez, txistek kontatzen dituzten umore txarreko horiek baino gehiago.

Errealitate dosi esan ohi zaio gertatutako atsekabeko egoerari. Krudelkeria ez den arren erreala den bakarra, errealitateak sarri egoera krudel baten beharra izan ohi du ameskeria ez dela argi azaltzeko. Askok dio bromak direla edota sare sozialetan gertatzen direnak ez direla errealitatea; zaplazteko batek sortzen duen mina, ordea, guztiz erreala da, eta erreal egiten du gure kide bakoitzari jaurti dioten irain bakoitza ere, gure kideak irrigarri utzi asmoz egin duten txiste bakoitza. Zaplaztekoa tresna politikoa da, halakoetan. Memea ere bai.

Eta azkeneko hori ez dugu ahaztu behar. Lau paragrafo gorago esan da. Memea ez da ondo pasatzea helburu duen praktika indibidual soil. Memeak

Memea subjektibatze-estrategia bat da, hau da, estrategia politiko bat gizabanako isolatu baten buru okerretik datozen ideia kaotiko bilakatzeko tresna da, politika erlatibizatzen duena eta egia desegin, dena efimeroa baita memearen irudirako. Militantea haragizko bilakatzea bere potentzia politikoetatik eta antolakuntza objektibotik erauztea da, azken finean

funtzio politikoa du, eta bere helburua etsaia politikoki desaktibatzea da, haragizko egitea, mundu honek sortzen duen gizabanako haragizkoa, zeina kontraesanez beteta omen dagoen eta zeinari ez omen zaion kasu gehiegirik egin behar, esaten duena ere haragia bezain inperfektua baita. Memearen bitartez militante politikoa desegiten da; desegiten da estrategia politiko baten arabera jarduteak ematen dion koherentzia, bere izaera militantea eta bere hitzak, kolektibo baten hitzak diren hitz horiek. Memea subjektibatze-estrategia bat da, hau da, estrategia politiko bat gizabanako isolatu baten buru okerretik datozen ideia kaotiko bilakatzeko tresna da, politika erlatibizatzen duena eta egia desegin, dena efimeroa baita memearen irudirako. Militantea haragizko bilakatzea bere potentzia politikoetatik eta antolakuntza objektibotik erauztea da, azken finean.

Memea estrategia bat da: batzuetan kontzienteki egiten dena, antolatua. Beste batzuetan, estrategia hori ez da gizabanakoen ekintza ez-antolatuaren emaitza baino, hau da, gizabanakoak gizabanako egiten dituen indar sozialaren adierazpena da estrategia hori, zeina gizabanakoek euren praktikan ez ezagutu arren arren, guztien arrazoibidean gailentzen den, gizarte kapitalistako gizabanako antikomunistak baitira. Halakoetan justifikatuta dago komunistei eraso egitea, haietaz trufa egitea eta hori orgasmo kolektiboa bailitzan bizitzea. Agian

ez dute aurretiaz pentsatu, baina ondoren ere pentsatu ez dutelako goza dezakete egoera horretaz. Emaitza berdina da, memea kontrairaultzailea da.

Memea ez baita txiste bat, ustezko umoredunek soilik uler dezaketena. Memea arrazoiketa-forma bat da, ez dena argudio sistematizatuan oinarritzen, zentzu komun abstraktuan baizik, baina oinarri politikoa duena, bere emaitza militante politikoen desegitea eta desegite horren bidezko politikaren desartikulazioa zein mespretxua baita. Horrelako eraso zuzenak, norbanakoen gaineko praktika ankerraren itxura hartzen duten eraso horiek dira politika bere formarik gordinenean, biolentziaren eta ukazio bortitzaren forman, eraso horren bidez ez baitute norbanako bat soilik jipoitzen; horren bitartez, hautu politiko bati egiten diote eraso.

Hasierako arrazoiketa-saiakera, etsaia gutxiestea helburu duena, ondoren bilakatzen da broma, eta mugatzen du bromaren hedapena: erantzuna jasotzen deneraino heltzen da txistea, ondoren datorrena ez baita broma soil bat umorez gainezka egiten duenarentzat. Pentsa zein irrigarria litzatekeen pailazokeriak egiten dituen pailazo bati pailazoarena eginez erantzun eta haserretuko balitz. Eta orain pentsa zein irrigarriak diren umorearen atzean ezkutatzen direnak argudio politikoei argudioekin ez erantzuteko, umore ez direlakoan.

Komuniston aurka egiten den memeak ez baitio lehen instantzian politikari muzin egiten, giro alai

***Hasierako arrazoiketa-saiakera, etsaia
gutxiestea helburu duena, ondoren bilakatzen
da broma, eta mugatzen du bromaren hedapena:
erantzuna jasotzen deneraino heltzen da
txistea, ondoren datorrena ez baita broma soil
bat umorez gainezka egiten duenarentzat***


batean murgiltzeko. Ez da barre egitea bere lehen helburua, etsaiari eraso egitea baizik. Grazia bera, edo txistea, ez dira hargatik memea ezaugarritzen dutenak; memea prozesu bat da non irekita dagoen iheserako aukera: inork argudioekin erantzunez gero, hartarako aukera ixten saiatzen da memea, soilik ondoren, erantzuna jaso denean. Memea saihezbide bat da, lehen instantzian politika bere forma zakarrenean egin duen horrek ondoren baliabide bat izan dezan, bere izaera politikoari uko egiteko: «ez zen nire asmoa argudioak ematea, broma bat egitea baizik», edo «Twitter ez da eztabaidarako gunea». Baina, errealki, inon ere ez dute beren burua ez den beste inorekin eztabaidatzen, edo arrazoia ematen ez dien inorekin, alegia, beren memea onartzen ez duenarekin. Zuzenago esan dezakete: «memetik kanpo dagoena ez da eztabaidarako gunea, eta memea bera ez da eztabaidagarri, broma bat baino ez baita».

Menderakuntza-saiakera politiko irrazional eta bortxazkoaren prozesua agerian geratzen da: lehen urratsa auzi politiko bati mespretxuz erantzutea da, solaskidea gutxietsiz, bera irrigarri uzten saiatuz edota zentzu komuna bere egiten duen mezua zabalduz. Ondoren dator txistea, jatorrizko mezu horrek erantzuna jaso eta zer erantzun ez dakitenean. ●

Meme kulturaren logika politikoa

10

Testua — **Garikoitz Ortiz de
Villalba Redondo**



Proletalgoaren bloke kulturalak histori-koki matxinadarako izan duen ageriko potentziala baretzen eta dagoen erreallitatearekiko duen jarrera moldatzen du errepresio ekonomiko, politiko eta fisiko gordinenarekin batera jasaten duen esku-hartze kulturalak. Masa kultura alienatzailearen bidez, klase menderatzaileak portaera-eredu zehatz eta larriak ezartzen ditu: diruarekiko erabateko sumisioa, indarkeriaren hutsaltzea, iragankortasunaren gorespenna, muturreko atomizazioa eta Kapitalaren legeek eragingo ez luketen mundua irudikatzeko ezintasuna bera.

Dirudienez ez dago helduleku izan daitekeen iltze goririk. Egungo testuinguruak, krisiak xedaturik, merkantzien ekoizpen sistema kapitalistari berezkoak zaizkion kontraesanak modu are muturrekoagoan erakusten ditu. Eredu posfordistan eta kontsumo gizartean oinarritutako metaketa zikloaren aukera historikoak agortu dira, eta horiekin bere produktu izarretako baten, garatu zuen eta gero eta murriztagoa den klase ertainaren, izateko arrazoia. Eroso bizi diren dagoenaren defendatzailer saldoek itsuki lasterka egingo dute proletarizazioaren aurkako noranzkoan, jakin gabe agertokia aurrez ezarrita dagoela eta haien izatea salbatzeko ezer gutxi egin dezaketela.

Latzagoa da, zalantzarik gabe, proletalgoaren zoria. Ekoizpenaren esferatik masiboki kanporatua, bere lotura sozialak azkeneraino higatzen dira. Hitzarmen sozial berriaren saiakerak baztertzan dituzten horiek ikusten dute nola haien soldadak modu orokortuan murrizten diren (langabezia estrukturalaren mamuari ihes egiten diotenek), nola beharrezkoak dituzten zerbitzu sozialak desagiten diren eta, azken buruan, nola gosez hiltzeraino pobretzen diren. Haien bizi kalitatea okertzen ari da, haien aurka baliatzen den kontrol sozialaren forma guztiak areagotzen ari diren bitartean. Gehien-go handiaren egunerokotasuneko lege nagusia da bizimodu gogobetegarria bermatzeko ezintasun materiala, eta horrek dakarren ziurgabetasun estugarriak berau pairatzen dutenen kontzientziak moldekatzen ditu. Etorkizun (hobe) baten promesak talka egiten du miseria, basakeria eta suntsipena eskaintzen dituen orainarekin.

Ez legoke oker industria kulturalaren egitekoetako bat irabaziak sortzea dela esatea. Alta, epizentroan miseriaren forma guztiak dituela garatzen den bizitza itxuraz eramangarri izan dadila lortzea ez da ekoizpen sozialeko beste ezein adarrek errazki bete dezakeen lana. Erakusleihu kultural zabalean bere gustuaren neurriko hamaika produk-

tu aurki dezake kapitalismo berantiarraren etapa honek sortutako edozein subjektibotasunek, bere hatzen irismenera berariaz jarrita. Industria kultural kapitalistak biztanleriak nahi duen entretenimendurako eta adierazpenerako forma guztiak kapitalizatzen ditu, ingeniari talde batek bezala, aseko dituen askotariko gustuen diseinu tekniko, hotz eta kalkulatu eginez.


Agerikoa da ordaindu beharreko prezioa: aurretiaz zedarrizten dira pentsamenduaren formak. Hori gutxi balitz, bloke kultural proletarioaren mundua ikusteko eran sartzeko bide erraza topatzen du pentsamendu burgesaren propaganda zabarrak. Maila sozialez igotzeko aukera (izan hezkuntzaren, talentuaren edo sakrifizio pertsonalaren bidez) existitzen ez den garai historikoan, osasun mentaleko arazoak dakartzan eta sistemaren osotasuna legitimatzen duen portaera patroia eta tresna ideologiko indartsua da aspirazionismoa. Gizarte

**Masa kultura
alienatzailearen bidez,
klase menderatzaileak
portaera-eredu zehatz
eta larriak ezartzen
ditu: diruarekiko
erabateko sumisioa,
indarkeriaren
hutsaltzea,
iragankortasunaren
gorespenna, muturreko
atomizazioa eta
Kapitalaren legeek
eragingo ez luketen
mundua irudikatzeko
ezintasuna bera**



***Interesgarria da ohartzea
nola ezaugarri horiek
gaur egun nagusitzen
diren pertsonen
arteko harremanak
deskribatzeko ere
balio dezaketen.
Ezein motatako
konpromisorik ezin topa
daitekeen bitartean
entretanimendua nagusi
da. Sare sozialen bitartez
edo alkoholez, orotariko***

***drogez eta intentsitate
altuko frekuentzia baxuz
inguratuta modu hutsal
eta iragankorrean
harremantzen dira
norbanako bakartuak***






ekintzailearen fantasiak bere buruaren aberastasun materialaren paradisuaren bermatzaile gisa eta, beraz, bere miseriaren errudun gisa kokatzen du norbanakoa. Badirudi sakrifizio pertsonalari eginiko oda horrek bizimodu erabat hedonistaren gorespenarekin talka egiten duela, baina, egiaz, txanpon beraren bi aldeak baino ez dira.

Ekoiztetxe kulturalak haien plataformetan pilatzen duten eduki itxuraz berritzailea (paradoxikoki, klixeeen eta egitura ezagunen errepikapenean oinarritua, hots, benetan errepikakorra) sortze eta kontsumo azkarrekoa eta, azken finean, hutsala da. Bere izateko arrazoia eskaintzaren eta eskariaren legeen arabera da eta duen ezaugarri hoberena kontsumitzaileari eskaintzen dion gozamen iragankorrek bere esku-hartzerako gaitasuna betikotzen duela da; dagoenaren onarpena. Interesgarria da ohartzea nola ezaugarri horiek gaur egun nagusitzen diren pertsonen arteko harremanak deskribatzeko ere balio dezaketen. Ezein motatako konpromisorik ezin topa daitekeen bitartean entretenimendua nagusi da. Sare sozialen bitartez edo alkoholez, orotariko drogez eta intentsitate altuko frekuentzia baxuz inguratuta modu hutsal eta iragankorrean harremantzen dira norbanako bakartuak.


Tweet-en, *YouTubeko short*-en, *Instagrameko story*-en, *Netflixeko miniserie*-en, *TikTokeko* bideoen edo harreman sexu-afektiboen laburtasuna eta kontsumoa *popper*-a hartzearekin parekagarriak dira; uneko plazeraren bilaketak izaera ontologikoa hartu du bizitzea egokitu zaigun garaian. Iltze goria argizaria balitz bezala urtzen da minutu baten buruan, eta *scroll* egiteak beste iltze bat dakar, baina justizia jainkotiarra ez da inondik ageri eta justuek jasotzen dute bekatarien zigorra. Sare sozialak gazteria proletarioaren harremanetarako paradigma bilakatu dira eta, entretenimenduaren industriaren parte direnez, bizitza sozialaren gainerako arloetan ematen diren joera objektiboetara erantzuten diete. Haietan ematen diren aldaketak eta haien azkartasuna futuristentzat ere imajinaezina litzatekeen abiadan sortzen duten estandarizazio kulturalarekin soilik aldera daitezke.


Errealitatea frustrazio indibidualez josia egon arren gaina hartzen du aurrerapen teknikoaren arrazionaltasunak. Imajinagarria soilik dena ere merkantilizatzeko joera kapitalistak ez du norbanakoen eta haien arteko harremanak bere atzarparratan hartzeko erreparorik. Espazio digitalak horretarako aukera berriak eskaintzen ditu; errealitate horren irudi garbia ematen du datu pertsonalen salerosketak eta haiek ondoren arrastoa jarraitzen




dieten, indexatzen eta sailkatzen dituzten formula matematiko multzoetan sartzeak. Korporazioek eta haietako marketin bulegoek kontsumitzailearen gustura (neurritza) egindako iragarki pertsonalizatuak jartzen dute ia erabat haien konfiantza publikitariora, eta hark iragarritako produktua erosteko orrialdera sarbidea dauka klik bakarrean.

Ongizate orokorreko sentsazioz, errezeta magikoz eta patroi kultural gaixogarrien erromantizazioz jantzita, fenomeno espontaneo, desordenatu eta nolabait autorregulatu gisa ageri da informazio fluxu hori. Ezta hurrik eman ere: plataformen eta sare sozialen kudeaketaz arduratzen diren korporazioek zehazten eta mugatzen dute aukera diskurtsoen tartea, hedabide burges klasikoen modura. Gainera, betorako arriskurik gabe, elkarrekintza digital horri berezkoa zaion tenteltzea sakontzen duen edukia eta zirku itxurako paradisu hori legi-







timatzen eta elikatzen duen edukia han eta hemen zabaltzen duten algoritmoek mimoz hartu ohi dute. Laburbilduz, eskuratu nahi den informazioaren egia balioaren eta hark eta haren plastikotasun formalak betetzen duten funtzio ideologiko lotsagabea identifikatzeko gaitasunaren arteko erlazioa espazio interaktibo horien mendekotasunezko kontsumoarekiko alderantziz proportzionala da.


Espazio horiek, esan bezala, esentzia iragankor eta hutsala duen edukia erreproduzitzen dute, eta horren adibide sintomatikoa dira memeak. Errazki *mimetizagarriak* diren informazio unitateak osatzen dituzten irudi, bideo muntaketa eta testu zati laburrak, gazteriak tresna komunikatibo nagusi gisa baliatzen dituenak. Agerikoa da islatzen duten abiada. Memeen bizitzaren zikloa intsektu txiki batenaren parekoa da: asteen buruan jaiotzen eta hiltzen dira, eta etengabe erreproduzitzen. Haien sailkapena eta analisi formala ustezko aditu andanaren aztergai izan daitezen ahalbidetzen du memeen ekoizpen hedatuak. Horien balizko unibertsaltasuna (negatiboa), entretenimendua eta baita errealitatearen gaineko kontzientzia kritikoa emateko gaitasuna goresten dute haiek. Alta, duten funtzio nagusia errotdik desberdina dela ahazten dute: indarkeria hutsaltzea, errealitatea sinplifikatzea eta desitxuratzea eta batere barregarriak ez diren gauzei aurre egiteko distantzia ironikoa hartzea bera artxibo digital horien mugimendurako ardatz


bilakatzen da. Memeen unibertsoan erresistentzia gutxi egiten duen hari eroalea topatzen dute bortsaketaren kulturak, hipersexualizazioak, norberarekiko mespretxu orokortuak, osasun mentalaren dramak, infantilizazio politikoak eta plazer iragankorraren gorazarreak.

Nagusi den miseria moralaren isla eta ondorio gisa, patroikulturalak eta dagoen errealitatearekiko jarrera orokortua aztertzerakoan kontuan hartu beharreko funtsezko elementuak bilakatu dira memeak eta, batez ere, haien oinarrian dauden pentsatzeko moduak. *Meme kultura* gisa izenda dezakeguna ez da arestian deskribatutako pentsamoldeen arabera mundua ikusi eta bertan egoteko modua besterik. Hori ez da norbanako bakartutara mugatzen. Maila internazionalan jarduten duten eta urteko mila milioi euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten korporazioak ere ez dira zuhurkerietan aritzen *community manager*-ak kontratatzerakoan, zeintzuek, modu inteligentean, meemek erabiltzen dituzten Twitterren pozik ez dauden bezeroei erantzuteko. Elkarrizketarako, kritika bat egiteko, iritzi baten aldeko posizioa hartzeko edo eztabaida politiko bati azken puntua jartzeko ezin konta ahala irudi eskura edukitzeak sortzen duen asetasun sentipena nabarmen kezkarria da. Hori baimentzen duen hausnarketarako, kontzentratzeko eta argudiatzeko ezgaitasuna soilik da are kezkarriagoa.

***Elkarrizketarako, kritika bat
egiteko, iritzi baten aldeko posizioa
hartzeko edo eztabaida politiko
bati azken puntua jartzeko
ezin konta ahala irudi eskura
edukitzeak sortzen duen asetasun
sentipena nabarmen kezkarria
da. Hori baimentzen duen
hausnarketarako, kontzentratzeko
eta argudiatzeko ezgaitasuna
soilik da are kezkarriagoa***

*Fenomeno horren enpresen
instrumentalizazioa
nazkagarria begitantzen
da lehen kolpean. Zer esan
borondate iraultzailez
mozorrotuta historikoki
agortutako posizio bat
argudioz defendatzea
saihesteko irrazionaltasun
emozionalenaren
mundura salto egin eta
egungo joera kulturelek
eskainitako dinamikez
baliatzen direnez*





***Ez dago eztabaida politiko zuzen
eta legitimorako aukerarik ondo
justifikatutako argudioak, azalpen
formalak eta barka-eske autokritikoak
beharrean txiste errazean,
errealitatearen desitxuratzean edo irain
zabar eta arbitrarioetan oinarritutako
diskurtsoak erabiltzen badira***

Fenomeno horren enpresen instrumentalizazioa nazkagarria begitantzen da lehen kolpean. Zer esan borondate iraultzailez mozorrotuta historikoki agortutako posizio bat argudioz defendatzea saihesteko irrazionaltasun emozionalenaren munda saltoa egin eta egungo joera kulturalak eskainitako dinamikez baliatzen direnez. *Meme kulturalaren* eta gure herrian duen erabilera politikoaren adibide argia dira Twitterren (eta harago) sortutako zalapartak; Ikasle Abertzalearen Bilboko egoitza, Gasteizko txosnetan Mugimendu Sozialistari jarritako beto politikoa eta gero eta ugariagoak diren, nekez hizki gutxi batzuk elkartzeko gai diren eta Euskal Herriko Mugimendu Sozialista ELA sindikatuak finantzatzeko duela (sic) bezalako gezurrak modu txarrean botatutako irainen bidez zabaltzen dituzten «kontu faltsuak», hala nola, horiek haizatzen dituzten Sortu alderdi sozialdemokratako kideak eta haien gazterietakoak (izan iritzi faltsua sortzeko edo haienaren bestelako modu batera politika egitea ezinezkoa dela pentsatzeko bezain sineskorak direlako eta haien gezurra sinesten bukatzen dutelako). Aurkaria barregarri uztea, eztabaidari ihes egitea eta joko zikina ezkutatzeko saiakera eta beto politikoa gezurrez eta azalckeriaz janzten dira. Ustez iraultzaileak diren agente horien ardura politikoa urria erakusten duten gezurrak eta azalckeriak.

Irrazionaltasunaren gurtza eta hedonismoaren gorespina ageri dira *Kabala* eta *Playz* programetan: gazteei zuzendutako tertulia gisako saioak, haien ustezko izaera politikoan babestuta *onkeriazko* erretorika duen eduki tenteltzailea zabaltzen dutenak. Ardura galera ekidinezina dakar errealitate konplexua ideia landu eta nahitaez konplexuen bidez adierazteko ezintasunak (borondatezko ezintasuna izan ala ez). Ez dago eztabaida politiko zuzen eta legitimorako aukerarik ondo justifikatutako argudioak, azalpen formalak eta barka-eske auto-kritikoak beharrean txiste errazean, errealitatearen desitxuratzean edo irain zabar eta arbitrarioetan oinarritutako diskurtsoak erabiltzen badira. Historikoki gauzaezinak eta kontraesanezkoak diren premisak onartzeak marko moral sozialdemokrataren barruan «denak balio du» batean erortzea dakarrela dirudi: *ex falso quodlibet*.


Egun, gizarte burgesa inoiz baino gehiago ari da kontraesan propioak direla-eta bere muga historikoetara hurbiltzen, eta zibilizazio proiektu gisa porrot egin duela erakusten ari da. Zurztasun politikoak eta horrek dakarren armagabetze ideologikoak langile klasearen gaineko esku-hartze kulturalerako aurrekaririk gabeko baldintzak jartzen ditu. Egoera hori hutsaltzen duten arduragabeek ez dute miserable deitzea besterik merezi. Agerikoa da beharra. Konplize horiek seinalatzeko eta lan militantean oinarritutako eta motibazio etiko indartsu batek hornitutako kultura sozialista bat eraikitzeko ardura hartzea inperatibo bilakatzen da, helduleku gisa balio duen iltze izan behar duena. Erredentzioaren fantasia irudikatzen urrun posibilitate erreala, desiragarri eta erabat beharrezkoa den iltze bat. ●

LA INDUSTRIA DEL ENTRETENIMIENTO: EL FANTASMA QUE RECORRE LAS GENERACIONES DE HOY

26

Texto — **Arteka**

Imagen — **Lander Moreno**



DAVE STEWART

THE QUE RIE

«Bienvenidos a la era de lo virtual, un tiempo sin taxonomía, un nuevo sensorium de lo inclasificable en el que, quizás, la muerte del código civil resulte terminar en una suerte de civilización sin código, salvo la moral de Instagram que, como el nombre indica, es la justicia del instante»

— Francisco Sierra Caballero

Uno de los términos que se ha generalizado en torno a los estudios culturales de la última década es el del *capitalismo de plataformas*. Esas líneas de investigación materialistas pretenden desmentir la concepción de que los videojuegos y las redes sociales sean plataformas de consumo privativo que nada tienen que ver con la ideología. Esa concepción parte de la idea de que la ideología se reproduce simplemente a través de los medios de comunicación, la prensa y la información de actualidad, así como que se limita a las secciones de política y economía de los medios de información.

Según autores como Sierra Caballero, que recogen las conclusiones de dichas investigaciones, es necesario un doble desplazamiento; por un lado la del eje clásico de la ideología a la semiología –es decir, cómo construimos las contradicciones en la representación– y un segundo eje que visualice cómo se desplaza la información política de la actualidad al entretenimiento.


Sierra Caballero afirma toda crítica a la mediación social, entendiendo la mediación no solo como medios sino «procesos culturales adyacentes, implícitos o latentes que están en todo proceso de representación discursiva o de la información». Parte desde un debate clásico entre dos tradiciones: «aquellos que piensan que el problema de la comunicación son los medios, el emisor que transmite un mensaje a través de un canal a un público más o menos disperso, y aquellos que consideran que para entender los medios es necesario ver los contextos históricos y culturales»: la historia de los medios, las mediaciones culturales.

Desde una perspectiva marxista una de las lecciones primordiales que señalan dichas investigaciones es que toda crítica a la mediación debe partir de una perspectiva amplia que nace de la crítica al fetichismo de la mercancía: es decir, «definir en qué sentido el discurso de los medios, aunque sean de entretenimiento, están reproduciendo las lógicas dominantes de la reproducción de la cultura capitalista».

De las imágenes y de los imaginarios, y bajo acusación de determinismo economicista de dichas investigaciones, «un análisis materialista de la mediación o el capitalismo cognitivo, implica que toda crítica debe cuestionar y partir de ese elemento: el fetichismo».

«Definir en qué sentido el discurso de los medios, aunque sean de entretenimiento, están reproduciendo las lógicas dominantes de la reproducción de la cultura capitalista»





***Conectan esos procesos de
representación en el entretenimiento
con otros procesos de reedificación
de la fantasmagoría del capital***

«Por ejemplo la proliferación de literatura, cine, videojuegos, con el tema de los zombis como en otras fases de la historia de la crisis del capitalismo son formas de la representación en el plano imaginario que tienen que ver con la transformación material histórica concreta: esto lo ha estudiado la teoría crítica de la literatura. Justamente, partiendo desde el fetichismo, conectan esos procesos de representación en el entretenimiento con otros procesos de reedificación de la fantasmagoría del capital».

Vuelven así a reaparecer las sombras de Conrad Veidt del *Gabinete del Doctor Caligari* (1920) el *Nosferatu* (1922) o la *Máquina Corazón* de la mítica *Metrópolis* (1927). La misma representación del fantasmagórico desarrollo del capitalismo, ese sigue siendo el fantasma que recorre Europa.

Como decíamos anteriormente, el reto de los estudios culturales actuales, en esta materia, pasan por visualizar como desde la industria del entretenimiento, y ciertamente desde estas plataformas tecnológicas, se reproduce la cultura capitalista. Asimismo, más allá de afirmar hipótesis, tienen como objeto plantear el rumbo que direcciona la cultura comunista, desde las posibles oportunidades que abre, una vez más, el escenario de ruptura y crisis que caracteriza este momento histórico.

Así, a partir de los primeros autores de investigaciones culturales, como Gramsci, Benjamin, Adorno, Horkheimer o Williams, los dispositivos tecnológicos son productos culturales y transmiten procesos y lógicas culturales, ya que son aparatos ideológicos del Estado.

El reto de los estudios culturales actuales, en esta materia, pasan por visualizar como desde la industria del entretenimiento, y ciertamente desde estas plataformas tecnológicas, se reproduce la cultura capitalista



Ilustrativo de ello es el libro *Doing cultural studies, The Story of the Sony walkman*, el cual señala porque se dan las innovaciones tecnológicas de esta manera, «porque empezamos por el walkman y no con otros dispositivos técnicos más horizontales, colectivos, y no individuales. La razón es que hay una lógica de valor que introduce un uso y una práctica asociada a una lógica de consumo individualizado». Así, aunque pareciera que las redes sociales son plataformas de comunicación colectiva, no son más que herramientas que profundizan en el individualismo y la disociación del individuo, que interactúa en una red de usuarios como mercancía.

Así la cultura comunista es una cuestión sin resolver, una cuestión que no se puede resolver del todo. No se puede proyectar en una forma definitiva. Es un proceso en construcción, y en ese proceso subyace lo siguiente: observar las conclusiones de los avances estratégicos y reflexionar sobre su adecuación.

El poder burgués puede tomar diferentes dimensiones; además de la dimensión política y económica, la lucha de clases también tiene un componente cultural, el cual permite el sometimiento de la clase obrera mediante la cultura. La burguesía implanta de ese

modo el comportamiento y el pensamiento de la sociedad. Es más, los determina. Es decir, la lucha de clases tiene dimensiones diferentes y produce efectos diferentes. Todos, sin embargo, están entrelazados y su valor es regenerar/acrecer la persistencia del poder burgués.

Por todo ello, es necesario entender las diferentes dimensiones y la complejidad del poder burgués. Para ello pueden haber varios frentes o perspectivas: el prisma de las subjetividades oprimidas, la cuestión de las libertades políticas y la dominación cultural, entre otros. A continuación trataremos sobre la tercera.

¿Qué supone, pues, el poder de la burguesía? ¿Cómo podemos analizar los efectos que tiene el poder burgués? Crea subjetividades oprimidas, conlleva limitaciones de libertades y nos domina culturalmente. Todos ellos no son fenómenos aislados; aunque aparecen diferenciados, están condicionados entre sí.

La visión de las subjetividades oprimidas se desarrolla con el objetivo de subyugarlos/aplastarlos por su funcionalidad para la burguesía, sacando de ellas un mayor rendimiento. Entre otras cosas, a través de las plataformas digitales se manifiestan las líneas transversales evidentes de la proble-

Aunque pareciera que las redes sociales son plataformas de comunicación colectiva, no son más que herramientas que profundizan en el individualismo y la disociación del individuo, que interactúa en una red de usuarios como mercancía

REPORTAJE — La industria del entretenimiento: el fantasma que recorre las generaciones de hoy






mática juvenil. Precisamente, a través de las plataformas digitales, y a través de las redes sociales, en particular, la industria del entretenimiento plantea una serie de cuestiones analíticas generalizables.


Lejos de ser plataformas de interrelación, estas plataformas de entretenimiento que como apuntábamos al inicio parecen aparentemente vacías de contenido, se nos presentan como aparatos ideológicos del Estado que han destacado en los primeros estudios culturales materialistas. Toda crítica relacionada con ese aspecto tienen en el centro dos corrientes analíticas en relación con la problemática juvenil: la influencia de estos aparatos en los hijos de la clase media y en los jóvenes de la clase trabajadora.

En efecto, estos instrumentos de modernización capitalista se han convertido en los principales medios de expansión de la aspiración de vida capitalista. Así, en ese llamado *ascensor social* representan un escaparate de un

***En ese llamado
«ascensor social»
representan un
escaparate de
un nivel de vida
que parece estar
al alcance de
cualquiera; incluso
han convertido
en referencias
simbólicas a
quienes llevan
la narrativa de
esas promesas***

nivel de vida que parece estar al alcance de cualquiera; incluso han convertido en referencias simbólicas a quienes llevan la narrativa de esas promesas. En efecto, estos nuevos ídolos (*instagramers, youtubers, twitcher*) que lejos de ser sujetos ajenos o inalcanzables, encarnan esos logros en rostros vecinales. Parece que, de este modo, pareciera que estas aspiraciones pueden alcanzarse por voluntad, que podemos tocar ese nivel de vida con la punta de los dedos, ya que su representación ha penetrado en los aspectos más íntimos de nuestro día a día (gustos musicales, ocio, modelos de relación, alimentación, sexualidad...). Estos, sin embargo, no pueden ejecutarse más que de un modo general en las vidas de los hijos de clase media. Por lo demás, para los jóvenes proletarios no es sino un instrumento de devaluación y despolitización y muestran su cara más cruda en la sexualización de las mujeres trabajadoras, en la violencia contra ellas y en su devaluación salarial.





Porque incluso en esas plataformas que parecen carentes de reglas y de mando, en última instancia, se pone de manifiesto que la concepción que rige el mundo por inercia es la ideología burguesa

En relación a esto, otro aspecto a mencionar es el de la perspectiva de las libertades políticas, dado que el poder de la burguesía se basa en la negación de la libertad de la mayor parte de la sociedad, de donde también es interesante observar. Desde una perspectiva de control social, supresión progresiva de derechos y persecución policial (bases de datos, horarios, hábitos de vida...) estas plataformas, por un lado, transforman las interacciones en mercancías y, a su vez, las convierten en mercado. Además, estos soportes supuestamente democráticos y garantistas de la libertad de expresión no extienden más que el individualismo, la irresponsabilidad ante las cuestiones sociales y la ideología burguesa. Si bien estas plataformas, en el mejor de los casos, son herramientas para la propaganda política e intervención política; en general, no son sino instrumentos de canalización de la indignación y frustración generada por la propia crisis capitalista. Además, en cuestiones como la de Ucrania, hemos visto claramente como otro de los principales exponentes de la decadencia de la democracia burguesa, el totalitarismo, influye también en ellas: la censura, la propaganda y la manipulación.

Porque incluso en esas plataformas que parecen carentes de reglas y de mando, en última instancia, se pone de manifiesto que la concepción que rige el mundo por inercia es la ideología burguesa. Como bien subrayó EKIDA, la ideología y el sentido común se representan en estos soportes según los patrones culturales que imponen la cosmovisión capitalista. Es decir, que la concepción capitalista del mundo determina, entre otras cosas, los valores morales de los individuos, el modelo de relación, las ambiciones, las aspiraciones, los gustos, los referentes, el humor, la comprensión de lo justo y lo injusto, la comprensión del bien y del mal y la comprensión de la política. Asimismo, la industria del entretenimiento no es ajena a ello. Es más, se ha convertido en uno de sus mayores sustentos. Para terminar con un dato ilustrativo, la industria de los videojuegos recibió, en plena pandemia, la mayor inversión de la historia por parte del Estado español: más de 70 millones de euros. A su vez, ha implantado el bono cultural para los adolescentes, más coloquialmente conocido como *el bono videojuego*. ●

ERREPORTAJEA

HAUSTURA 280 KARAKTERETAN



Testua — **Arteka**

Irudia — **Aitor Arroyo**



Gogorrek bezain ugariak izan dira azken urteotan Mugimendu Sozialistaren eta Ezker Abertzalearen artean piztu diren mediatizatutako liskar politikoak. Liskar dei diezaiegun, horiek eztabaibatatzat jotzea inteligentziaren aurkako iraina izan baitaiteke kasu gehienetan. Ideien borrokaren oinarritzko baldintza da berau termino politikoen gainean eraikitzea, aurkariak esandakoa bere horretan hartu eta kualitatiboki gailentzen zaizkion argudio propioak gaineratzen saiatu behar litzateke bere burua politikotzat duen edozein eragile. Horregatik, posizio zein hipotesi desberdinak argitzeko balio behar luke bi eragile politikoren arteko eztabaidak; bertan jaurtitako argudioak, justuki, politikoak izango direla suposatzen delako. Zintzoki jokatu nahi bada, mahaigaineratutako tesiek norberaren hipotesiak, proiektu estrategikoa edo taktika identifikatzeko balio behar lukete. Txistologiak, irainak eta difamazioak, beraz, posizio politiko bati eraso egiteko balio dezakete, baino ez dute eztabaidaren edukia norberaren posizioak argitzearen bidez betetzen. Bestea neutralizatzeko borondatea da halako jarrerak azaltzen duten posizio bakarra, miseria propioak estaltzean eta arerioa inolako printzipio etikorik gabe suntsitzean oinarritzen den kultura politikoa jariatzuz.

Mugimendu Sozialistarentzat nahi eta ezin amaigabea izan da Ezker Abertzaleari argudio politiko garatuak erauzteak. Erabilitako kontzeptuen arteko urruntasunagatik edo Ezker Abertzaleko egungo kultura politikoan aipatu txistologia zein irain hutsalerako nagusitzen den joeragatik, konfrontazioen gehiengoak ez ditu emaitza intelektual aberasgarriak eman. Hemen polemika horietako batzuk baino ez ditugu berreskuratuko, posizio bakoitzak esan zuenaren eta esan ez zuenaren egiaztapen partzial gisa.



GKS-REN SORRERA

Aurretiaz polemika gehiago egon ziren arren, Gazte Koordinadora Sozialistaren (GKS) aurkezpenak mugarri bat ekarri zuen Ezker Abertzalearen eta garaian *Ildo Sozialista* gisa izendatzen zenaren arteko konfrontazioan, 2019ko otsailaren 17ko GKSren lehen agerraldi publikotik aurrera, ika-mikek bestelako dimentsio eta intentsitatea hartu baitzuten.

Antolakunde berriak oraindik sare sozialetako kontu ofizialik ez izateak asmo txarrenei aukera paregabeak ireki zizkien. GKSren grafia, estetika zein diskurtsoa imitatzen zituzten kontu faltsuak sortu ziren Twitterren, eta adierazpenak egin zituzten horien bidez. Maniobra horrek antolakundearen ospea hasieratik kolokan jar zezakeenez, GKS ohar ofizial bat argitaratu behar izan zuen GEDAR LANGILE

KAZETAren bitartez, iritzi publikoaren nahasmendua saihestu eta ondoko puntuak argitzeko: oraindik ez zuela sare sozialik, kontu guztiok faltsuak zirela, GKS ez zela kontu horiek argitaratu zezaketen edukiaren erantzule, eta «joku zikin» horrek GKSri eraso egiteko interes politikoei erantzuten ziela.

Bien bitartean, aurkezpen-prenstaurrekoko irudiekin egindako meme eta parodia zaparrada bat iritsi zen Twitterren, Instagrameko meme kontuetan zein Whatsapp taldeetan. Besteak beste, militanteen irudiak erabili zituzten, haietaz pertsonalki trufatu eta antolakundea bera irrigarri uzten saiatzeko. Horren egiletza zuzena Ezker Abertzaleari leporatzea teknikoki zaila den arren, eduki guztion zabalpean horko militante ezagunek jarrera aktiboa izan zutela publikoki nabarmendu zen.



Aurretiaz polemika gehiago egon ziren arren, Gazte Koordinadora Sozialistaren (GKS) aurkezpenak mugarri bat ekarri zuen Ezker Abertzalearen eta garaian «Ildo Sozialista» gisa izendatzen zenaren arteko konfrontazioan

Eneko Compains Sortuko kidea-
ren eskutik heldu zen argudiaketaren
itxura izan zezakeen elementu bakarra.
*Gaztetxes y lucha obrera en Euskal He-
rria* deituriko artikulua «kritikoa» argi-
taratu zuen ^[1], bere irakurleei GKSren
sorreraren berri eman ez zien *Gara*
egunkarian. Compainsen erantzunak
aurreko eztabaidetan modu nahasia-
goan aurkezturiko ideiak eta Sorturen
korridoreko elkarriketa pribatuetan
eratutako topikoak kondentsatzen zi-
tuen. Bertan definitu zen Ezker Aber-
tzaleak aurrerantzean Mugimendu
Sozialista konfrontatzeko baliatuko
zuen diskurtsoa: «espainolismoa»,
«ezkerkeria», «obrerismoa» eta «dog-
matismoa». Kasu hartan, gainera, eus-
kal preso politikoekiko «desatxiki-
mendua» ere leporatu zitzaion gazte
antolakunde sozialistari. Akusaziook,
Twitterreko hariez gain, puntuz pun-
tuko erantzun garatuak jaso zituzten

Gezurrak eta burges metodologia: errebisionismoaren porrota. Eneko Compainsi erantzuna ^[2] eta *Socialismo o barbarie, respuesta a Eneko Compains y a la burocracia de Sortu* ^[3] bezalako artikuluetan. Kritikaturako objektuaren eta baliatutako kontzeptuen gaineko ezagutza urria nabarmendu zen Ezker Abertzalearen partetik, ez baitzioten militante sozialisten azken kontraargudiaketari bestelako erantzunik eskaini. Horren orde, aipatutako akusazioak sare sozialietan mantra baten modura errepikatzen jarraitu zuten aldiro.

PARANOIA KOLEKTIBOA

Hutsune analitikoaren eraginez, bazirudien Ezker Abertzalearen munduan Mugimendu Sozialistaren inguruko ulerkeraren paranoidea nagusitu zela une batez. Zenbait kasutan, tesi sozialisten hedapena nahiz gorpuzte politikoa *«atzerriko konplot»* baten parte zirela esatera edota sinestera ere iritsi izan dira euskal sozialdemokraziaren buru zein guru ugari; eta horien hitzarekiko kortesiaz, baita militante arruntak nahiz oinarri soziala ere. Bere momentuan Euskal Herriko komunitate sozialistaren arreta handirik deitu ez zuen arren, Iñaki Soto *Gara* egunkariko zuzendariak «Espainiako komunisten finantzazioa jasotzea» egotzi zion norbaiti 2019ko iraileko *Erria* aldizkarian, honako izenburu iradokitzailea duen elkarrizketa batean: «Gure belaunaldiaren borroketariko bat bizipen politikoei lotuta egon da gehiago, eztabaida intelektualari baino» ^[4].

Akusazio larria zen, gainera, ez zuen frogarik eskaintzen, ezta subjektua zuzenean interpelatzen ere. Hala ere, Ildo Sozialistaren agerpenak Ezker Abertzalearen baitan sortu zuen nahasmena ulertzen laguntzen digu. Bestelako azalpenik gabe eta analogia pobre baten laguntzarekin, baieztapen hau egin zuen Jule Goikoetxearekin «klase diskurtsoaz» eta ustezko «ez-

Zenbait kasutan, tesi sozialisten hedapena nahiz gorpuzte politikoa «atzerriko konplot» baten parte zirela esatera edota sinestera ere iritsi izan dira euskal sozialdemokraziaren buru zein guru ugari; eta horien hitzarekiko kortesiaz, baita militante arruntak nahiz oinarri soziala ere

kerreko erreakzionarioez» mintzo zen bitartean: «Bestalde, Julek esan duenari erantzunez, ez daudela finantzatuta ez da erabat egia. Eztabaida hau ere ez da berria. Krutwigek oso argi detektatu zuen espainolismoa, Espainiako Alderdi Komunistak finantzatutako espainolismoa, hain zuzen ere». Ezker Abertzalearen zuzendaritzak nazionalki zabalduetako zurrumurru horrek harrera ona izan zuen militante egoskor eta jarraitzaile despistatuen artean. Horren ondorioz, Twitterren «espainolista» hitza teklatzen zuten militante-bot batzuk ugaltu ziren, Ezker Abertzalearen baitan gorroto klima irrazional bat sortzeraino. Horrek tesi sozialistekin bat egiten zuten pertsona konkrituak sistematikoki seinalatuak eta mehatxatuak izateko testuinguru aproposa sortu zuen Euskal Herriko hainbat txokotan.

Denborak eta jardun sozialistak aurrera egin ahala, «espainolismoaren» akusazioaren eta konspirazioaren teoriak zertxobait apaldu direla esan daiteke. Mugimendu Sozialistak nazionalismo espainolarekiko antagonismo zuzena adierazi du ekintza bakoitzean, eta, kontzeptu ideologiko zein estrategiko desberdinen baitan, begitan izan ditu euskararen diglosia egoera, zapalkuntza nazionala, joan den ziklo poli-

tikoaren kontzientzia historikoa nahiz preso politikoak. Konplotaren mitoari dagokionez, auto-antolakuntzarako ustekabeko gaitasunek eta aliantza murrizteko ezaugarritu dute Mugimendu Sozialistaren posizioa gaurdaino. Ondorioz, bi baliabideon sinesgarritasuna eta eraginkortasuna propagandistiko ki agortuz doa Ezker Abertzalearentzat. Iraganeko mamuak astintzea nahikoa izan zitekeen mugimendu berri eta ezezagun bat deabrutzeko, baina lau urteko jarduera solidoaren ostean ez dirudi horren erraza denik. Sare sozialietan edota komunikabideetan egindako adierazpen berriagoak bilatu ahala, Mugimendu Sozialistaren existentzia zerbait «normala» edota «naturala» dela entzungo dugu Ezker Abertzaleko militanteen ahotan ^[5]. «Espainolismoaren» sententziari edo bestelako eldarnio konspirazioaleei eusten dioten txiolari asaldatuak tarteka azaldu arren, kontzeptuak ez du liskarrean lehen zuen zentraltasun bera, eta ez dator Ezker Abertzaleko kide organikoek teklatutik. Bistan da eusko sozialdemokraziaren bozeramaile eta *txiologoek* diskurtsoan moldaketak egin behar izan dituztela, eta horrek guztiak badu zerikusirik garatu den testuinguru politikoarekin.



***Bistan da eusko
sozialdemokraziaren
bozeramaile eta «txiologoek»
diskurtsoan moldaketak egin
behar izan dituztela, eta horrek
guztiak badu zerikusirik garatu
den testuinguru politikoarekin***

***Gertatutakoaren inguruan
azalpenak eman edota
tentsioaren sorreran zuten
ardura aitortzetik urrun,
egoitza Ezker Abertzalearena
dela esatera eta IAri barre
egitera mugatu ziren
Twitterren zein euren
inguru sozialean, inolako
argudiorik eskaini gabe***



ERRONDAKO EGOITZA

2019ko uztailaren 5ean Sortuk Bilboko Erronda kaleko egoitza lapurtu ziola salatu zuen Ikasle Abertzaleak (IA). Aurretik ere, 2018-2019 ikasturte hasieran, emana zuen alderdiaren asmoen berri: egoitzaren jabetza zuen Euskal Ikaslearen Erakundearen zuzendaritza batzordetik ordura arteko izenak kendu eta alderdiko kideenak erregistratu zituen Sortuk ezkutuan. Jabetza bereganatu ostean, egoitza husteko adierazi zien IAKo kideei. Hori egin ezean, «erreparorik gabe» botako zituztela esan zieten.

Sortuk ikasle mugimenduaren jarduna apaltzen den uda garaira arte itxaron zuen sarraila aldatu eta segurtasun sistemak jartzeko. Horren aurrean, egoitza «determinazio osoz» defendatzeko borondatea adierazi zuen IAK. Sortuk egindakoa salatzeke, Euskal Herri osoan barrena, «Sortu, utzi IA bakean!» zioten pankartak eskegi zituen IAK. Ezker Abertzaleko kideek Dostian jarri zuten erantzun-pankar-

tak nahiko ongi laburtzen du gatazka osoan zehar izan zuten jarrera, kalean nahiz sare sozialetan: «*Segi ikastera eta utzi Sortu pakean, peeesaus!!!*». Gertatutakoaren inguruan azalpenak eman edota tentsioaren sorreran zuten ardua aitortzetik urrun, egoitza Ezker Abertzalearena dela esatera eta IARI barre egitera mugatu ziren Twitterren zein euren inguru sozialean, inolako argudiorik eskaini gabe. Ondorioz, iritzi zehatz bat eraikitzen aritu ziren: zalaparta guztia «IAREN umekeriaren» emaitza zela, eta ikasle antolakundearen jarduna «Sorturi aurka egitean» oinarritzen omen zela. IAK, kontrara, prentsaurreko bat ^[6] eta hainbat idazki ^[7] eskaini zituen gertakarien kontaketa kronologiko zehatza eta jabetza-aren nahiz erabileraren inguruan duen ulerkera gizarteratzeko. Horrekin guztiarekin justifikatu zuen ikasle antolakundea eta ikasle mugimendua zirela egoitzaren ondorengo legitimoak, eta ez azpiegitura ugari dituen Sortu alderdi milioiduna.

Ezker Abertzaleko militante gazteenek IAREN prentsaurrekoko irudiekin bideo-muntaketa iraingarriak eta meameak zabaldu zituzten sare sozialetan, GKSren sorreran bezalaxe. Gorte osoak bufoiekin barre egin zuen orduan ere. Sortuk egoera konpontzeko zuen presuntasun falta eta Bilboko ikasle mugimenduak azpiegiturarik gabe jarraitzen zuela ikusita, IAK mahai gainean kolpe bat ematea erabaki zuen. 2019ko azaroaren 17an, Ikasle Abertzaleak 31. urteurrenean, hainbat kide egoitzan sartu ziren hura berreskuratzeko. Sorturi txantxetarako gogoa kendu zitzaien bat-batean, eta Ertzaintzarekin batera bertaratu zen. «Atea bota eta atxilotzearekin» mehatxatu zituzten, baita «autoritatea desobeditzeagatik 300 eta 600 euro arteko isunak» ezartzearekin ere. IA tinko mantendu zen, egoitza berreskuratu zuen eta ordutik ez du gai horren inguruan hautsak hartzeko beharrik izan.







ERRAKI

Gatazka berehala bihurtu zen esplizitu gaztetxe zein bestelako Langile Kontrolpeko Espazioen eremuan, jarduera politikora bideratutako azpiegituren inguruan ere ulerkera desberdinak azaleratu ziren-eta. Mugimendu Sozialistak espazioon zaugarritasunari modu antolatuan aurre egiteko tresna bat mahaigaineratu zuen 2019ko martxoan: Erraki. Baliabide analitiko, estrategiko, material zein juridikoak garatzen eta espazioen defentsa eraginkorra artikulatzen aritu da ordutik. Hala, Errakirekin bat egin dute Euskal Herriko hamaika gaztetxek zein bestelako gunek, modu desberdinetan. Langile Kontrolpeko Espazioen Babes Sarearen arabera, «elkar-laguntza konprometitu eta desinteresatua» oinarritzat dituen «elkartasun antolatuaren» printzipioaren baitan jardun dira.

Ezker Abertzaleak eta Herri Mugimendua delako zenbait eragilek hasieratik mehatxutzat jo zuten Errakiren proposamena, eta polemikak berandu baino lehen egin zuen jauzi sare so-

zioletara. Erraki sortu eta denbora gutxira, ohar anonimo bat zabaldu zen haren aurka Euskal Herriko hainbat gunetan; modu pribatuan lehenbizi, publikoki ondoren. Funtsean, «gune autogestionatuen autonomiaren aurka» aritzea, «homogeneizazio ideologikoa inposatzea» edota «martxan diren antolakuntza markoak kontuan ez hartzea» egotzi zioten tresnari. Errakik bere funtzionamenduaren inguruan argipenak emanez erantzun zuen, eta ondoko erronka jaurti zien solaskide anonimoei: «egin ditzatela proposamen politiko zehatzak»^[8]. Ezker Abertzaleko militanteek eta autonomiaren interpretazio jakin batzuk egiten dituzten norbanakoek gutun anonimoari zabalpena eman zioten sare sozialetan. Errakiren oharrari inork ez zion erantzun ordea, ezta hark jaurtitako erronkari ere.

Gasteizko Arkillos 10 etxe okupatuaren inguruan piztu zen gatazkak, tokiko izaera zuenak izatez, antzeko patroik kontzeptuala jarraitu zuen, bizilagun ohi batzuek 2020ko abenduan

***Ezker Abertzaleko militanteek eta
autonomiaren interpretazio jakin
batzuk egiten dituzten norbanakoek
gutun anonimoari zabalpena eman
zioten sare sozialetan. Errakiren
oharrari inork ez zion erantzun ordea,
ezta hark jaurtitako erronkari ere***



argitaratutako gutunaren harira ^[9]. Bertan, Errakik aurretik mahaigaineratu zituen argudioei entzungor egin, haren funtzionamenduaren inguruan zituzten aurreiritziak zabaldu eta Arkillos Errakiri lotzearen auzia ondoko terminoetan kokatu zuten: «hamar urtez, bizilagunez eta kolektiboz oso anitza izan den etxe bat, non, besteak beste, ildoko kideek ere beren bilerak eta bestelako erabilerak egin izan dituzten, lau egunetan pasatu da Errakirekin lotu den etxe bat izatera. Une zehatz bateko gehiengoak inposaturik bai, ez kontsentsuz». Horren bidez, «bizilagun anitzak eta Gasteizko Herri Mugimendua vs Ildo Sozialista» dikotomia erai-ki zuten, Erraki espazioaz «bidegabeki jabetu» zela aditzera emanez.

Bi dinamika esanguratsu piztu ziren sare sozialetan, gutuna argitaratu aurretik eta argitaratu ondoren. Lehenbizi, Mugimendu Sozialista babesten omen zuen *troll* kontu anonimo bat azaldu zen gaia oraindik Gasteizko zirkulu txikietan baino ezagutzen ez zenean. Erabiltzaileak Errakiren posizioa aurretiaz baldintzatzeko saiakera egin zuen, babes sarea zoriondu baitzuen «Arkillosko bizilagunak kanporatu izanagatik». Bigarren elementu azpimarragarria gutuna plazaratu ostean iritsi zen, Ezker Abertzaleko txiolarien eta oinarri sozialaren artean izandako zabalpenarekin. Haie-tako batzuen inspirazio sortzailea ere piztu zuen polemikak, Arkillosko bizilagun sozialisten erantzunaren aurretik meme eta muntaiak iritsi baitziren. Errakiren pankarta baten argazkian, adibidez, «*Espazioen gaineko GKSren kontrola*» zioen muntaketa egin zuten, «Espazioen gaineko langile kontrola» ordezkaturik.

Eztabaidarako prestutasun falta agerikoa zen arren, Arkillosko bizilagunen asanbladan gehiengoa osatzen zuten militante sozialistek gertakariak azaldu eta ondorio politikoak atera zituzten beste ohar batean ^[10]. Akusazio-oharraren sinatzaileetako bat Ezker Abertzaleko militantea zela ezagutzero emateaz gain, Errakira batzeko beneta-

ko prozedura eta baldintzak zeintzuk izan ziren argitu zuten, baita barnejardueraren inguruko mitoak gezurtatu ere: «Errakik ez du gune binkulatuen eguneroko jarduna baldintzatzen eta guk dakigula, gaur-gaurkoz inork ez du kontrakorik frogatu. Erraki espazioen defentsari begira lanaren banaketa eraginkor bat egiten duen eragilea da. Errakik ez ditu ildo politiko batekiko "subordinazio eta diziiplina" exijitzen, arriskuan dauden gainerako gune binkulatuen defentsarako lan banaketan parte hartzeko konpromisoa baizik: elkartasun pankartak egin, lan egunak...». Bestalde, «Langile Kontrolpeko Espazio» kategorian analitiko bat dela azaldu zuten, ez militantzia sozialistak esleitu edo ken dezakeen estatus bat. Etxebizitza Errakira lotzeko erabakiari dagokionez, kontsentsua ezinezkoa zen egoera batera heldu zirela azaldu zuten bigarren gutunean. «Horren aurrean bi aukera zeuden: gutxiengoak nahi zuena onartzea etxearen gehiengoak, edota, gehiengoak nahi zuena onartzea gutxiengoak», ondorioztatu zuten. Orduan ere ez zuten erantzunik jaso, eta Ezker Abertzaleak lehen bertsioa zabaltzen jarraitu du.

U30-EKO GREBA

ELA eta LAB sindikatuek greba orokor batera deitu zuten 2020ko urtarri-laren 30erako. Mugimendu Sozialista kritikoki batu zen deialdira, «heziketa politikorako eta koiunturaren gaineko irakurketa propioa plazaratzeko aukera egokia» izan zitekeela iritzita. Tokian tokiko indarrekin, beraz, greba batzordeetan parte hartzen, piketeak egiten eta manifestazioetan bloke propioak osatzen aritu zen militantzia sozialista. Hala ere, hiru ohartarazpen egin zituen: batetik, greba orokorrak «klase ertainaren alderdi eta sindikatuen hegemonia indartzeko nahiz bestelako mugimenduek haiekiko izan dezaketen dependentzia areagotzeko» balio zezakeela. Bigarrenik, sozialdemokratiak «pentsiodunen mugimenduaren aldarrikapenak hauteskundeetan kapitalizatzeko» helburuarekin sustatu-



tako greba zela. Hirugarrenik, «hauteskunde-dinamika elikatzen zuela, ekoizpen-harremanak zalantzan jarri gabe eta ekoizpenaren ohiko jarduerara mehatxatu gabe». Ondorioz, GKSko ohar bat argitaratu zuen greba egunaren biharamunean, kritikaren lerro nagusiotan sakonduz.

Sortuk, beste behin, Eneko Compaini jarri zion «komunista zentzudunaren» lana. Zuzenbide irakasleak otsailaren 3an GKSren adierazpena kritikatu zuen Twitterreko hari batean. Bertan, irakurketa «Maravillas gaztetxean ibilitako lagun batek» bidali ziola esan zuen ezer baino lehen; «haiekin (GKS) oso haserre». Iruñeko Maravillas gaztetxea zenaren kontuak zuzenean erantzun zion, formen inguruko

ohartarazpena eginez: «Errespetu falta izugarria iruditzen zaigu proiektu politikoa (Maravillas) armatzat erabiltzea gure artean bandoak eratzeko. Gainera, aipatu beharra dago jende zehatza zuzenean seinalatzearen larritasuna». Edukian sartuta, «gezurra esatea», «grebarekiko konpromiso falta», «zatiketa sustatzea» edota «sektarismoa» egotzi zizkion GKSri Compainsek, besteak beste. Ezker Abertzaleko txiolariek txalotu egin zuten hari horren bidez GKSri eman omen zion «astindua», baina militantzia sozialistaren erantzunak ez zuen luze jo, ez Twitterren ez GEDAR LANGILE KAZETAn^[11]. Ondoko puntu orokorretan laburtu daiteke eztabaidan eskainitako azken erantzuna:



- Kritika teorikoa, politikoa eta er-
ganizatiboa ezin da greba orokorraren
aurkako sabotajetzat jo.

- Ezinbestekoa da langile guztien
grebarako aukerak bermatzea eta lan-
gileria grebaren antolaketaren par-
te izateko mekanismo eraginkorrak
sortzea.

- Greba orokorrak ez dira mugi-
mendu bat edo besteren jabetza, lan-
gile klase osoaren tresna estrategikoa
baizik.

- Greba deialdia ez zen ELA eta
LABen eragin esparruetatik askoz ha-
rago heldu.

ITAIA

Emakume Sozialisten Sare gisa aur-
keztu zen Itaia, 2018ko urriaren 20an.
Tesi sozialistak emakumeen auzian ere
lurreratzen hasteak ezinegon sortu
zuen Euskal Herrian. Itaia blog batean
artikuluak, irakurketak, kolaborazioak
eta analisi politikoak argitaratzen hasi
ahala, edukien gaineko interpretazio
interesatuak eta euren egileen ingu-
ruko difamazioak ere biderkatu egin
ziren.

Ezker Abertzalearen eta Mugimen-
du Feministaren zirkulu jakin batzue-
tan, adibidez, emakume sozialisten
gaitasun politiko zein intelektuala gu-
txiesten zuten zurrumurruak zabaldu
ziren, Itaiako kideak «euren mutil-la-
gunen esanetara» zeudela ziutenak;
«komunisten neska-lagunak» deitzen
zieten. Konfrontaziorako etikaren ma-
rra gorri guztiak gainditzten zituela ja-
kitun, ez ziren irain hori sare soziale-
tan zabaltzera ausartu.

Aurrekoak Itaiaren inguruan sortu-
tako iruditegi interesatuaren inguruan
idea bat egiten lagun diezaguke. Egun
Emakume Sozialisten Antolakundea
denaren aurkako gorrotoak, gezurrak
eta irainak ez dute etenik izan. For-
mazio sozial kapitalistan emakumeen
zapalkuntzak hartzen duen forma
zehatza aztertzen eta horri aurre egi-
teko klase batasunean zein klase inde-
pendentzian oinarritutako estrategia
mahaigaineratzen diharduen antola-
kundeari «matxismoaren kolabora-

tzailea» izatea leporatzen diote hamai-
ka modutara, eta sare sozialak horren
isla izan dira.

2020ko azaroaren 27an, Ezker Aber-
tzaleko militante batek Itaiaren aurka-
ko akusazio ugari bildu zituen Twitte-
rreko hari batean. «Patriarkatuaren
existentzia ukatzea», «erasotzaileen
erantzukizuna ezeztatzea», «biolen-
tzia matxista justifikatzea», «espazio
ez-mistoen kontra egotea» eta «za-
palkuntza anitzak sinplifikatzea» le-
poratu zion antolakundeari, besteak
beste. Bere komunitatearen txalo za-
parrada birtuala jaso zuen, espero be-
zala. Itaiako kide batek baieztapenok
gezurtatzen zituzten oinarri ugari lu-
zatu zizkion. Hasteko, akusazioa egin
zuenak «patriarkatu» kontzeptuaren
inguruko definizio zehatzik ez zuela
agerian utzi zuen, eta bestetik, patriar-
katua kontzeptu analitiko gisa ez era-
biltzetik erasotzaileen figura zuritzera
salto handia dagoela ohartarazi zuen,
beraz, «erasotzaileen figura zuritzea
edota defendatzea trikimailu politiko
miserablea» dela adierazi zuen Itaiako
kideak. Langile klasearen batasun po-
litikoa ardatz izateak «norabide estra-
tegikoaren logikari» erantzuten diola
argitu zuen bestetik; zeinak eraso ma-



***Ezker Abertzalearen eta
Mugimendu Feministaren
zirkulu jakin batzuetan,
adibidez, emakume sozialisten
gaitasun politiko zein
intelektuala gutxien zuten
zurrunurruak zabaltzen ziren,
Itaiako kideak «euren mutil-
lagunen esanetara» zeudela
ziotenak; «komunisten neska-
lagunak» deitzen zieten***





txistak «norma kultural bilakatzen dituen errealitatea aztertzea eta fenomeno horien zergatia azaltzea» galdegiten duen. Espazio ez-mistoek, berriz, estrategia sozialistaren baitan lekuren bat izan dezaketela argitu zuen, «ez al diz, banaketa politikoaren printzipiopean», «auziaren lanketa jarraikorra bermatzeko helburuz eta sexuen arteko banaketa sozialaren ondorioz espazio mistoek sor ditzaketen oztopoak gainditzeko asmoz» baizik. «Ah, eta alua jan iezadazue» izan zen bestearen erantzuna.

PANDEMIA ETA SALBUESPEN EGOERA

Muturreko egoerek posizio politikoak modu gardenagoan ikusteko balio dutela esan ohi da, eta COVID-19aren testuingurua ez zen gutxiagorako izango. EH Bilduk Espainiako Gobernuak ezarritako «alarma egoeraren» alde bozkatu eta «osasun kolektiboaren» izenean ezarri ziren neurri murriztaile guztiak onartzen zituen bitartean, Mugimendu Sozialistak bestelako posizio batetik heldu zion koiunturari. Desmobilizazioan hondoratu beharrean, agitazio eta antolaketa politikorako etapa sendoa zabaldu zen bertako antolakunde guztientzat. Konfinamendua ezarri eta berehala, GKS kanpaina politiko bat jarri zuen martxan, ondoko puntu kardinalekin ^[12]:

1) Burgesiaren salbuespen neurri politikoak bertan behera uzteko eta askatasun politikoak berrezartzeko premia.

2) Sozialdemokraziaren izaera kolaborazionista alarma egoeraren aurrean.

3) Koronabirusaren kausen, efektuen eta eraginen egia ezagutzeko premia.

4) Berehalako zeregin politikoak alarma egoeraren aurrean.

Ildo horretan, Espainiako Gobernuak hartutako salbuespen-neurriak «burgesiaren ofentsibatza» jo eta tokian tokiko indarrekin aurre egiteari ekin zion. Aholkularitza zein babeserako lan-ildoak ireki zituzten etxe-

bizitzaren, jazarpen polizialaren eta soldatapeko lanaren alorretan. Hori ez ezik, itxiera perimetralak, etxeratzaginduak, COVID ziurtagiria eta askatasun politiko zein zibilen aurkako bestelako erasoak salatzeke mobilizazio ziklo osoak ere martxan jarri zituen gazte antolakundeak Euskal Herrian barrena. Ikasle Abertzaleak ikastetxeetako zein unibertsitateetako ikasbaldintzak borrokatzeke proposamen zehatzak mahaigaineratu zituen hezkuntza esparruan, eta Unibertsitateko Indar Batasunak apunte-banku digitala nahiz doako klase partikularren sarea osatu zituen.

Ekoizpen teoriko-politikoari erreparatuz gero, ugariak, sakonak eta formatu anitzetakoak izan ziren militantzia sozialistak horren denbora-tarte laburrean koiunturari erantzuteko eskaini zituen irakurketak. *Gedar.eus* atarian, hilabetekari honetan, Twitterreko harietan, prentsako kolaborazioetan, *Gedar Telebistan*-n... hamaika eduki mahaigaineratu dira. Mugimendu Sozialistako antolakundeek zein norbanakoek gertatzen ari zenaren gaineko euren ikuspuntua azaldu zuten, horren aurrean hartu beharreko posizio politikoak justifikatu zituzten. Bestelako eragileen argitalpenei ere arreta jarri zioten, beharrezkoa izatekotan kritikatzeko. Ezker Abertzaleko militantziak eta oinarri sozialak, oro har, ez zieten gehiegi erreparatu Mugimendu Sozialistak eskainitako argudioei, bai

**Kritika sozialista
«negazionismoarekin,
ultraeskuinarekin eta
liberalismoarekin» alderatu
behar zuten; euren irakurleak
«azalpen luzeegiekin» gehiegi
aspertu gabe, hori bai**



ordea argudio horien inguruan eurek sortu zituzten ideiei. Gehien-gehienek EH Bilduren hautu politikoa zalantza izpirik gabe justifikatu zuten. Horretarako, kritika sozialista «negazionismoarekin, ultraeskuinarekin eta liberalismoarekin» alderatu behar zuten; euren irakurleak «azalpen luzeegiekin» gehiegi aspertu gabe, hori bai.

Salbuespen egoeraren luzapen mugagabeak ondorioak izan zituen, ordea, aginte politikoarentzat. Gazte-altxamendu espontaneoak jazo ziren Euskal Herriko hamaika txokotan, batzuk parranda giroan. Alderdi instituzional guztiak, Ezker Abertzalea barne, ezustean harrapatu zituen fenomenoak izan zen ordukoa. Iñaki Egaña historialari beteranoak *Naiz* atarian «gazte nihilistatzat» zituen bitartean^[13] eta Mertxe Aizpurua EH Bilduko legebiltzarkideak «poliziak prebentiboki esku hartu behar lukeela» zioen une berean,

Ernaik «gazte kriminalizazioa» zein «kontrol poliziala» salatzen zituen. GKSri, ordea, «osasun publikoa bost axola zaien parrandazale indibidualistak» justifikatzea egotzi zioten behin eta berriz Twitterren.

IPUIN KONTALARIAK ETA MANIFESTARI KONTULARIAK

2021-2022 ikasturte politikoan Ezker Abertzaleari beste alde batera begiratzeari galarazi dioten bi gertakari eragin ditu Mugimendu Sozialistak: Altsasuko Gazte Topagune Sozialista eta GKS urtarrilaren 29an Bilbon eta Iruñean egindako manifestazioak. Lehenengoari dagokionez, 1.500 gaztetik gora bildu ziren bost egunez Sakanako herrian, eduki politikoak lantzeko eta aisialdiaz gozatzeko. Azken urteetan Mugimendu Sozialistaren aurkako Twitterreko erasoetan aktiboak izan diren zenbait erabiltzai-

le «Euskal Herriko gazte mugimenduaren aniztasunagatik» poztu omen ziren, Topagunearen arrakasta ikusi ostean.

Topagunea burutu eta handik gutxira, *El Mundo* egunkariak Mugimendu Sozialista kriminalizatzeko erreportaje bat argitaratu zuen: «*La gran convocatoria de los nuevos cachorros*»^[14]. Bertan, Mugimendu Sozialistaren eta ETaren arteko loturak egiteaz gain, militante jakinen aurpegiak eta datu pertsonalak plazaratu zituzten. Horren aurrean, artikulua «euskal gazteriararen aurkako eraso» gisa definitu zuten Ezker Abertzaleko kide ugariak Twitterren. GKS ohar bat atera zuen, eta kriminalizazio saiakera salatzeaz gain, bestelako marko batean kokatu zuen gertakaria: «Politikoki interesatuta dauden batzuk ulertzera eman nahi dutenaren kontrara, gertatutakoa ez da euskal gazteriararen aurkako eraso soil. Prole-



***Mugimendu Sozialistako
kideek manifestaziora
joandako jende kopuruaren
estimazioaren oinarria
justifikatu behar izan
zuten, ohikoa ez dena. Auzi
funtsezkoenaren gaineko
arreta desbideratzea izan
zen Ezker Abertzalearen
nahia: azken hamarkadetan
ezinezkoa zirudiena bete
dela, posible dela milaka
lagun aldarri komunista
baten atzean biltzea***



tariotzaren antolakuntza independen-teari eman zaion abisua eta egin zaion mehatxua da». Ondorioz, antolakun-tza forma jakin hori munduko edozein txokotan era berean erasoko luketela argudiatu zuten GKSko kideek; «nahiz eta, kasuan kasu, egunkariak, politi-kariak, mafiosoak eta poliziek gezur eta nahaste desberdinak erabiliko lituzketen».

Urtarrilaren 29ko manifestazioekin, Mugimendu Sozialistaren masa izaera agerian geratu zen. 7.000 lagun inguru mobilizatu ziren *Burgesiaren diktadu-ra gelditu, ofentsiba ekonomiko eta poli-tikoari aurre egin!* lelopean. Bada, Ezker Abertzaleko zenbait militanteri ideia ona iruditu zitzaaien manifestariak zen-batzen hastea. LAB sindikatuko kazeta-ri bat, adibidez, Bilboko manifestazioa-ren amaierako ekitaldiko argazkian buruak banan-banan zenbatzen aritu zen. Buru bakoitzaren gainean puntu berdeak jarritz atera zituen bere ondo-rioak, eta Twitterren argitaratu zituen. Beste batek «metro koadroko estima-zioa» egiten duen programa informa-tiko bat baliatu zuen. *Naiz.eus* atariak manifestazioaren inguruko albiste bat atera zuen, Mugimendu Sozialistaren inguruan berririk argitaratu gabe hiru urte igaro ondoren ^[15]. Zenbaketa pro-pioa baino ez zuen jarri albiste horre-tan, antolatzaileekin kontsultatu gabe eta iturri ezezagunekin. Beste biek bezala, Ezker Abertzalearen hedabi-deak gutxietsi egin zuen manifestari kopurua, eta «gezurra esatea» egotzi zion antolakundeari. *Naiz*-eko zuzen-dari Iñaki Altunak, esate baterako, «GKS zifrak puztu zituela» txiokatu zuen. Gauzak horrela, Mugimendu So-zialistako kideek manifestaziora joan-dako jende kopuruaren estimazioaren oinarria justifikatu behar izan zuten, ohikoa ez dena. Auzi funtsezkoenaren gaineko arreta desbideratzea izan zen Ezker Abertzalearen nahia: azken ha-markadetan ezinezkoa zirudiena bete dela, posible dela milaka lagun aldarri komunista baten atzean biltzea.

GASTEIZKO TXOSNAK

Gasteizko Etxebizitza Sindikatuak eta GKSko ohar bat argitaratu zuten 2022ko otsailaren 6an, Gasteizko Txos-na Batzordeak txosna jartzea debekatu ziela salatzeke. Batzordeak ezarritako araudiaren arabera, «oinarri politiko ez baztertzaileak eta irizpide oso za-bal batzuk betetzen dituzten eragile guztiek» omen dute txosna jartzeko eskubidea. Mugimendu Sozialistako eragileok baldintzak betetzen dituzten arren, betoa ezarri zieten, hiru «arra-zoirengatik»: «agenda mobilizatorio eta estrategia politiko propioak iza-tea», «eragile gatazkatsuak izatea», eta azkenik, «eraso matxisten protokoloa ez betetzea edota Txosna Batzordea kontrolatzea» bezalako difamazioak.

Eragile sozialistek argitu zuten ez, eurei baino ez zaizkie ezarri baldintza horiek, beraz, txosnen espazioa, diru-laguntzak eta finantzazio iturria «ildo politiko jakin baten eskuetan» geratu dira, hots, Ezker Abertzalearen eskuetan. Izan ere, militantzia sozialistak Twitterren eta GEDAR LANGILE KA-ZETAn aurrerago azaldu zuen moduan, gertakariok agerian uzten dute Herri Mugimendua delako eragile ustez «independenteek» Ezker Abertzalea-ren erabakiekin bat egiten dutela auzi funtsezkoenetan.

Mugimendu Sozialistak salaketa lau haizeetara zabaldu zuen arren, ez zirudien Ezker Abertzaleak erantzuteko asmorik zuenik. Joseba Permach Sortuko militanteak otsailaren 8an Twitterren egindako adierazpenak ezin hobeto adierazten du Ezker Aber-tzalearen sektore autokontzienteen lo-gika: «Ba txio inpopularra idatziko dut, baina nire ustez akatsa da beste ba-tzuk etengabe jartzen dizkiguten gai/amuen bueltan ibiltzea... Haiek albora begiratzen dutelako, ez dezagun guk gauza bera egin eta parez pare ditu-gun arazoei aurre egin eta baldintzatu dezagun guk agenda...». Esan eta egin. Militantzia sozialistak gertakari- inguruko salaketan Herri Mugimendua-ren auzia zeharka aipatu arte itxaron zuen Ezker Abertzaleak, eta orduan





***Gaurko egunez oraindik
ez dute beto politikoaren
inguruko azalpen
publikorik eskaini, bere
momentuan «Arabako Alea»
hedabidean argitaratuko
zutela esan zuten arren***

baino ez zuen lokatzetara salto egin. Militante sozialisten adierazpen jakin batzuk hautatu zituzten, «Herri Mugimendua iraintzen» ari zirela eman zezan. Terminook oinarritzat zituen liskar bat haientzat onargarria zenez, halaxe hasi zen meme, txantxa, muntaketa, irain, gezur eta txisteen ohiko artilleria. Bereziki larriak izan ziren bi elementu gailendu ziren horien artean: batetik, ELAren finantzaketa jasotzea egotzi zioten Mugimendu Sozialistari. Bestetik, militante sozialisten argitaratu gabeko irudiak lortu eta horiekin Twitterreko kontu faltsuak sortu zituzten, burla zein seinalamendurako. Gaurko egunez oraindik ez dute beto politikoaren inguruko azalpen publikorik eskaini, bere momentuan *Araba-ko Alea* hedabidean argitaratuko zutela esan zuten arren.

KONFRONTAZIORAKO TAKTIKA BERRIA

Liskar berrienei erreparatuz gero, Ezker Abertzalearen sare sozialetako propaganda-taktika berriaren norabidea hautemango dugu. Lehen eztabaida teoriko-politikoak kasu gehienetan saihesten bazituzten, orain ia inoiz ez dira esparru horretan sartzen. Bestalde, duela gutxi arte ezerezetik sortutako akusazio ugari zabaltzeko iniziatiba nabarmena izan dute, eta orain ez horrenbeste. Moldeon eraginkortasuna, oro har, urria izan da eta Mugimendu Sozialistaren artikulaziorako joera, berriaz, gorakorra. Hori ikusita, militante sozialistek (ustezko) hanka-sartzeren bat egiteari itxaron eta berau mediatikoki puztea lehenetsi dute azkenaldian. Argudiaketaren erdian tonua zertxobait igotzea, kritikaren bat egiterakoan hitz gogorragoak erabiltzea, ezezagunek preso politikoen aldeko pintaketak ezabatzea, pankartaren bat gaizki jartzea... Edozerk balio izan du. Emozio subjektiboen zelaira desertatu, neurrigabe eskandalizatu, oinarri soziala batuta mantendu; dena Mugimendu Sozialista bakartzen saiatzearren.

Militante sozialistek (ustezko) hanka-sartzeren bat egiteari itxaron eta berau mediatikoki puztea lehenetsi dute azkenaldian

Zentzu horretan, Ezker Abertzalearen sare sozialetako jokamoldearen oinarri «teorikoa» nahiko argi laburtzen du Peru Azpillagak Ernairen martxoko *Alea*-n ^[16]. Gaiaren abiapuntua, justuki, duela hilabete batzuk emozioen eta arrazoiaren harira Twitterren sortu zen liskar bat da. Ernairen *Klak* proiektu komunikatiboaren programa batean Eraitz Saez EH Bilduko legebiltzarkideak egindako adierazpenak seinalatu zituen militante sozialista batek, Saezek «arrazoa patriarkarra da» esan eta subjektibismo irrazionalaren gorazarrea egin zuenean. Ideia horiek doktrina faxistaren oinarri filosofikoa direnez, militante sozialistak halako adierazpenen arriskua ohartarazi zuten. Legebiltzarkideak kritikarekin «eraso» egin ziotela sentitu zuen ordea, eta Ezker Abertzalearen komunitate politiko osoak ez zuen akatsik ikusi adierazpenetan, alderantziz, itsu-itsuan babestu zuten legebiltzarkidea; «faxista» deitu omen ziotelako intzirika. Bada, halako pasarteek praktikoki berresten dute irrazionaltasun faktoreak Ezker Aber-

tzalearen kultura politiko garaikidean duen zentraltasuna, Azpillagak nahi-ko modu esplizituan aditzera ematen duen moduan: «Markoa kokatzeak eztabaida bat zuk nahi duzun terminoetan eta zuk nahi duzun ideia horren inguruan ematea dakar. Eta berdin du oinarrian egia edota gezurra egon: markoa kokatzen bada, eztabaida irabazita dago, eta horretan emozioek funtsezko papera jokatzen dute. Hori dela eta, hobe genuke zurrumbilo honen erdian, inguratzen gaituen horri erreparatuko bagenio, gure tradizioari eutsiz, baina jendearekin konektatzeko bide berriak bilatzeari ekin behar diogu, ezkeraren sinbologia eta komunikazio bide klasikoak aspaldi agortu baitziren». ●

ERREFERENTZIAK

1 Compains, E. (2019). *Gaztetxes y lucha obrera. Sobre el naciente izquierdismo en la Eukal Herria de hoy*. naiz.eus.

2 Orratz (2019). *Gezurrak eta burges metodologia: errebisionismoaren porrota. Eneko Compainsi erantzuna*. burdinhesia.wordpress.com

3 Kolutza (2019). *Socialismo o barbarie, respuesta a Eneko Compains y a la burocracia de Sortu*. borrokagaraia.wordpress.com

4 Soto, I. (2019). *Gure belaunaldiaren borroketariko bat bizipen politikoei lotuta egon da gehiago, eztabaida intelektualari baino*. erria.eus

5 Servier, A., García, P., Hernando, I., Zabarte, P. (2021). *Gurea izan da termino estrategikoetan zailtasun handienei aurre egin behar izan dien belaunaldietako bat*. erria.eus

6 GEDAR LANGILE KAZETA (2019ko irailaren 24a). *[Prensaurrekoa] Egoitzaren auziarekin eragindako «arazo larria» konpon dezan exijitu diote Sorturi*. YouTube.com

7 Iksle Abertzaleak komunikatuek gain, gatazka haren inguruko ulermen politikoan sakontzeko, ikus Ander Goiatxeren *Bilboko erronda kaleko egoitzaren lapurretaz* kolaborazio artikulua eta Beñat Aldalurren *Bestearen egia* koiuntura politikoko analisisa, biak gedar.eus atarian irakurgai.

8 GEDAR LANGILE KAZETA (2019ko ekainaren 26a). *Errakik bere aurkako eraso anonimoa salatu du*. gedar.eus

9 Maite, Ruben eta beste etxekide ohi batzuk (2020). *Arkillos 10: Autogestioa, asanblada eta auzolanaren balioak ezberdin ikusten ditugu guk*. halabedi.eus.

10 Arkillos 10eko asanblada (2020). *Arkillos 10: Bizilagun ohi batzuek publiko egin duten irakurketaren asanbladaren erantzuna*. halabedi.eus.

11 Beñat, A. *Urtarrilaren 30eko greba orokorraren inguruan, sakontzeko elementuak*. gedar.eus

12 GEDAR LANGILE KAZETA (2020ko martxoaren 20a). *Burgesiaren ofentsiba gelditu, GKSren kanpaina politikoa salbuespen egoeraren aurrean*. YouTube.com

13 Egaña, I. (2021). *Violencia poligonera*. naiz.eus.

14 Iglesias, L. (2021eko urriaren 19a). *Diez años sin ETA: la gran convocatoria de los nuevos 'cachorros'*. El Mundo.

15 NAIK (2022ko urtarrilaren 29a). *«Burgesiaren diktadura gelditzeko» mobilizazioak egin ditu GKS Iruñean eta Bilbon*. naiz.eus

16 Azpillaga, P. (2022). *Emozioak politikan*. Alea 06.

Argitalpena
2022KO MAIATZA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia




Nere nobiaren ama,
nere nobiaren ama,
ELAKO kidea dana;
Iraultza finantzatzeko
latz egin behar dau lana...



As you wish.

El Ideólogo K habla de financiación millonaria. Bien, una coalición que se presenta a elecciones y logra más de 200.000 votos obtiene una financiación legal del Estado. Ahora toca explicar cómo financia un movimiento minoritario miles de carteles, una TV, un medio digital, etc.




Elsaki en etatsila

Zikinkeriak ez du klaserik



NI GKS NI ERNAI

SOLO RASTAFARAI



No Youth Organizations in Erronda's Flat



Baina Kartelak "No Youth Organizations in Erronda's Flat" di...

arteka



ES DE MI AGRADO INFORMALES

QUE ES DOMINGO DE BISSON HEJIA



IRAILTZAILA DA?

Segurata cara rata
1:44 a. m. - 6 nov. 2021 - Twitter for iPhone
9 Me gusta
Yo creo que es el mejor tweet de tu cuenta hermano. Me entendiendo cuál es el formato. Menos hilos y mas baras. A ver si tus compas pilan ejemplo
Respeto tu opinión equivocada

Bi irudi elkarren ondoan hobeto ulertzen direnean...



Er nio, beraz, eztabaida geroa eta geroa burgesen burgesismoa...
Ernati Langhi Kontrolatuko Espas...
Alkate jostaria del auzopertuak espas...
Alkate jostaria del auzopertuak espas...
Alkate jostaria del auzopertuak espas...



Kalte material larriak izan dira EHUren fakultateak, eta gutxienez hogei garte atxikitu dituzte Gasteizen, ikasle grebaren harira



INSTAGRAMEKO GAZTE SUPER PIKATZEN TOPAGINEA
GONDOIAPEAN DAT ESKERATZEN:
- Ikasle Abertzaleek agian agian TRAPNALDO ASKATU komentatu behakio duzu.
- Gertu komentatzen duzue ari bit (ezango du).

Trapnaldo betidunik blokeatzen
GONDOIA 12 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31



Uso manga larga para ocultar mi dolor

Temo que GKS anuncie repentinamente la presentación de GKS-Miputacasa y manden a tres militantes a poner sillas y un atril en mi salón
2:48 p. m. - 19 oct. 2021 - Twitter for iPhone



EMAKUMEAK ELKARREKIN MANIFESTATUKO GINELA ESAN ZENIDAN

Muybasbas @muybasbas - 2020 abe. 4
Hola soy @kolito, y os vengo a explicaros un poco TODO y vuestras opciones. ¡Que no os enteráis de nada!
Vuestros Gaztetxes son una MIERDA pinchada en un palo y que o los convertís en eso que queremos nosotros (LGUTFEN) o sois burgueses-alixes del enemigo y parte del problema.



EMAKUME LANGILEAK



Deba bilerak GKS @GKS_DebaBilera - 2021 urt. 20
#EIBAR Mugimendu sozialistari eazirikako bete politikaren harira. Eibarko GKStik eta @DebabaikensokAlik egiten dugun irakurketa:



Gaur gaurer Tigraen Urtea hasiko da, txinatarren ilargi urte berria. Tigra indarra, kementa, independentzia eta justiziaren ikurra da.



COMO RECONOCER UN DERRAME CEREBRAL?
PALABRAS DEL DERRAME
PALABRAS SIN SENTIDO
hablando
hablando

DISIDENTE!!